Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2124

AGINDUA, 2010eko martxoaren 18koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, «Begoñako Andra Mari» Irakasleen Unibertsitate Eskola Deustuko Unibertsitatera atxikitzea baimentzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, bere autonomia-estatutuko 16. artikuluak xedatzen duenez, irakaskuntza-eskumena du, eskumenaren luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, eta molde eta espezialitate orotan, eta, betiere, arau hauek agintzen dutenarekin bat etorriz: Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak; 6/2001 Lege Organikoak, abenduaren 21ekoak, Unibertsitateei buruzkok; 4/2007 Lege Organikoak, apirilaren 12koak, Unibertsitateei buruzko legea aldatzekoak; eta 3/2004 Legeak, otsailaren 25ekoak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 62.2 artikuluan arautzen ditu unibertsitate publikoen gaietan eskumena duen sailari dagozkion ahalmenak, eta horien artean aipatzen ditu honako hauek: ikastetxe publikoak edo publikoak ez direnak atxikitzea onestea eta atxikipena kentzea, unibertsitateko titulu ofizialen ikasketak eskain ditzaten; eta Euskal Autonomia Erkidegoak onartutako titulu ofizialak lortzeko irakaskuntzak, ikasgela barrukoak edo birtualak, ezarri edo ezabatzea.

Apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatu egin zuen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitateei buruzkoa, eta, aldaketa horren harian, bere artikulu bakarreko bederatzigarren puntuak idazketa berria ematen dio 6/2001 Lege Organikoko 11.1 artikuluari. Testu-aldaketa horren ondorioz, posible da, hitzarmen bidez, unibertsitate pribatu bati atxikitzea ikastetxe pribatu bat, titulu ofizialak eta lurralde nazional osoan baliozkoak direnak lortzeko bide ematen duten ikasketak irakats ditzaten; izan ere, lege-aldaketa hori egin aurretik, soilik unibertsitate publikoen esku zegoen atxikitze-aukera hori. Edonola ere, atxikitze hori gertatzeko, autonomia-erkidegoen onespena behar da, unibertsitateen proposamena jaso ondoren.

Apirilaren 12ko 557/1991 Errege Dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu eta aitortzeari buruzkoak, 16. artikuluan xedatzen du, ikastetxe publikoak edo pribatuak unibertsitatetara atxikitzeko, ezinbestekoa dela errege-dekretuak berak atxikitze horiek baimentzeko eskatzen dituen gutxie-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2124

ORDEN de 18 de marzo de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza la adscripción de la Escuela Universitaria de Magisterio «Begoñako Andra Mari» a la Universidad de Deusto / Deustuko Unibertsitatea.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, en virtud del artículo 16 del Estatuto de Autonomía tiene atribuida la competencia de la enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades, en conexión con la disposición adicional primera de la Constitución, la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, y su modificación por la Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril, y la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.

El artículo 62.2 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, regula las facultades del departamento competente en materia de universidades públicas situándose, entre ellas, la de aprobar la adscripción de centros docentes, de titularidad pública o no pública, para impartir títulos universitarios oficiales, así como su desadscripción y la implantación o supresión de enseñanzas presenciales o virtuales, conducentes a la obtención de títulos oficiales o reconocidos por la Comunidad Autónoma.

La Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril, por la que se modifica la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, establece en su artículo único.nueve una nueva redacción del artículo 11.1 de esta última, posibilitando la adscripción mediante convenio a una universidad privada de centros docentes de titularidad privada para impartir estudios conducentes a la obtención de títulos de carácter oficial y validez en todo el territorio nacional, materia hasta este momento reservada a las universidades públicas. En cualquier caso, esta adscripción requerirá la aprobación de la Comunidad Autónoma, a propuesta de la Universidad.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 16 del Real Decreto 557/1991, de 12 de abril, sobre Creación y reconocimiento de Universidades y Centros universitarios, la adscripción de centros de titularidad pública o privada a universidades exige el cumplimiento de los requisitos señalados en el pro-

neko baldintza materialak eta irakaskuntzako baldintzak betetzea. Eskakizun horri erreparatuta, adierazi behar da ikastetxeak bete egiten dituela arau horrek ezarritako baldintza orokorrak.

«Begoñako Andra Mari» Irakasleen Unibertsitate Eskolak Bilboko Barrainkua kaleko 2. zenbakian du egoitza (48009), eta haren Patronatu Batzak, 2008ko azaroaren 25ean, Deustuko Unibertsitatera atxikitzeko tramiteak abiaraztea erabaki zuen. Horretarako, idatzi bat igorri zuen Deustuko Unibertsitateko Idazkaritza Orokorrera, ziurtatuz hitzarmen bat izenpetu zutela, 2008ko uztailaren 24an, atxikitze hori arautzeko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Hezkuntza Sailari 2009ko azaroaren 13an igorritako idatzi baten bidez, bi erakunde horien lege-ordezkariek eskatu zuten Deustuko Unibertsitateari atxikitzea «Begoñako Andra Mari» Irakasleen Unibertsitate Eskola.

Horrenbestez, ikusita «Begoñako Andra Mari» Irakasleen Unibertsitate Eskolako Patronatu Batzak 2008ko azaroaren 25ean hartutako erabakia; ikusita bi aldeek 2008ko uztailaren 24an izenpetutako hitzarmena, Unibertsitate Eskola hori Deustuko Unibertsitatera atxikitzea arautzen duena; eta ikusita proposamen hori Euskal Autonomia Erkidegoari igorri zaiola, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko 11.1 artikuluak arautzen duena betez; honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.– «Begoñako Andra Mari» Irakasleen Unibertsitate Eskola Deustuko Unibertsitateari atxikitzea onartzea, eta irakaskuntza-jarduerak 2009-2010 ikasturtean hasteko baimena ematea.

Bigarren artikulua.– 2009-2010 ikasturtetik aurrera, Haur Hezkuntzako gradu-titulua eta Lehen Hezkuntzako gradu-titulua eskuratzeko irakaskuntzak emango dira, baldin eta aldez aurretik egiaztatzen eta ezartzen bada haien izaera ofiziala, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, unibertsitate-ikasketa ofizialak antolatzekoak, seigarren xedapen gehigarrian (Eliza Katolikoaren Unibertsitateari buruzkoan) arautzen duen prozedurari jarraituz.

Hirugarren artikulua.– «Begoñako Andra Mari» Irakasleen Unibertsitate Eskolaren araubidea osatuko dute honako xedapen hauek: apirilaren 12ko 4/2007 Lege organikoa (abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa Unibertsitateei buruzko legea, aldatzekoa); otsailaren 25eko 3/2004 Legea, Euskal Unibertsitate Sistemarena; «Begoñako Andra Mari» Irakasleen Unibertsitate eskola Deustuko Unibertsitateari atxikitzepio Real Decreto respecto de las exigencias materiales y docentes mínimas para su autorización. En este sentido, el centro cumple con los requisitos generales establecidos en esta normativa.

La Junta de Patronato de la Escuela Universitaria de Magisterio «Begoñako Andra Mari» con sede en Bilbao (48009), calle Barrainkua, n. º 2, acordó iniciar con fecha 25 de noviembre de 2008 los trámites necesarios para su adscripción a la Universidad de Deusto / Deustuko Unibertsitatea, para lo cual remite escrito de la Secretaria General de la Universidad de Deusto / Deustuko Unibertsitatea certificando la suscripción del convenio de fecha 24 de julio de 2008, mediante el que se regula la citada adscripción.

Los representantes legales de ambas instituciones, mediante escrito remitido al Departamento de Educación, Universidades e Investigación con fecha 13 de noviembre de 2009, solicitan la adscripción de la Escuela Universitaria de Magisterio «Begoñako Andra Mari» a la Universidad de Deusto / Deustuko Unibertsitatea.

Por todo ello, a la vista del Acuerdo de la Junta de Patronato de la Escuela Universitaria de Magisterio «Begoñako Andra Mari» de fecha 25 de noviembre de 2008, el Convenio suscrito entre ambas partes con fecha 24 de julio de 2008 que regula la adscripción de la citada Escuela a la Universidad de Deusto / Deustuko Unibertsitatea y elevada la citada propuesta a la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en virtud del artículo 11.1 de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades,

DISPONGO:

Artículo primero.– Aprobar la adscripción de la Escuela Universitaria de Magisterio «Begoñako Andra Mari» a la Universidad de Deusto / Deustuko Unibertsitatea, y autorizar el comienzo de actividades para el curso 2009-2010.

Artículo segundo.– Se impartirán a partir del curso 2009-2010 las enseñanzas conducentes a la obtención de los títulos de Grado en Educación Infantil y Grado en Educación Primaria, una vez verificados y establecido su carácter oficial de acuerdo con el procedimiento regulado en la Disposición Adicional Sexta referente a las Universidades de la Iglesia Católica del Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, por el que se establece la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales.

Artículo tercero.– La Escuela Universitaria de Magisterio «Begoñako Andra Mari» se regirá por lo dispuesto en la Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril, por la que se modifica la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, por la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, por el convenio de adscripción de la Escuela Universitaria de Magisterio «Begoñako Andra Mari»

ko hitzarmena, 2008ko uztailaren 24koa; eta haren barne-araudia.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 18a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

a la Universidad de Deusto / Deustuko Unibertsitatea de fecha 24 de julio de 2008 así como por su Reglamento de Régimen Interno.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de marzo de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.